



2011ko emaitzak

Zinegotziak



Bozka kopurua



Herritar ugari hurbildu zen mahai desberdinetara haien bozka emateko.

Alkatetza kolokan

Udako Udala Hauteskundeek Lasarte-Oria izan duten emaitzei buruz albiste dira aipagarri, batetik PSE-EEK izan duen jaitsiera, zortzi zinegotzitik zazpi zinegotzi izatera pasa da eta zailtasun gehiago izan ditzake alkatetzari eusteko, eta bestetik Bildu indartsu sartu dela Udalean bost ordezkarekin.

Gainera, H1, Aralar eta Ezker Batuak ez dute ordezkariarik lortu, 2007an ez bezala (orduan H1 EA zen eta Aralar-EB batera aurkeztu ziren). Beraz, azken legeal-

dian zazpi alderdi bazeuden Udalean, berrian bost bakarrik izango dira, PSE-EE, Bildu, EAJ, LOHP eta PP.

Aukerak


Udal Gobernuaren osatzeko aukera ezberdinak izango dira: bat, PSE-EEK bakarrik gobernatzea; beste bat, oposizioko alderdiren batekin bat egitea, ... baina lehenengo aldiz oposizioko alderdiak elkartu eta gobernu aldatzea ere posible da.

Hori adierazi dute hauteskundeetan biharamunean,


Bildu, EAJ eta Plataformako ordezkariak: "herriko alkatetza eskutik aldatzeko apustu garbi eta zintzoa egingo du Bilduk" Pablo Barriok; "PSOE-PP-ren boto kopuruen jaitsiera da guretzako ondoriozko positiboena aspalditik izan ez dugun aldatuta batetarako aukera sortzen delako" Estitxu Alkorta eta "balantza alde batera edo bestera modu erabakigarrian alda dezake Herritar Plataformak, baina beti ere erantzukizuna eta hausnarketa kontuan izango du" Ana Isabel Prietok.

2007ko emaitzak

Zinegotziak



Bozka kopurua





Salesianos Urnieta Salesiarrak

LANBIDE HEZIKETA

FORMACIÓN PROFESIONAL

Diseinu grafikoa, Inprimaketa, Serigrafia, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Diseño Gráfico, Impresión, Serigrafía, Mecánica, Electricidad, Electrónica

maiatzak 28, 10:00-13:00
28 de Mayo, 10:00-13:00

www.salesianosurnieta.com



ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

zatoz ven



SALESIANOS urnieta

SALESIARRAK



Irudian, Izkiña tabernako jokalariai, oso pozik lortutako garaipenarekin.



Ederki pasa zuten Jalguneok Talde Mistoaren aurka futboleko jokatzen. Disfrutatzea zen kontua, ez emaitza.



Leire Zubizarreta judokak jaso zuen Kirolari onenaren saria.



Auzolan sari berriz, eliza atontzen duen emakume taldeak jaso zuen.

Izkiñak irabazi du Areto Futboleko finala

■ Larunbatean jokatu zen Herriko Areto Futboleko XXVIII. txapelketako finala ■ ISU Lehioak eta Izkiña tabernak jokatu zuten berriro finala eta aurten Izkiña izan da garaile

Finala oso berdindua eta oso borrokataua izan zen. Paco Jandula epaile federatuak, partidari hasiera eman zionean, irabazteko gogoz atera ziren bi taldeak. ISUK iazko garaipena errepikatu nahi zuen, eta Izkiñak berriz, garaipena Urtzi taldekideari eskaini nahi zion.

Lehenengo zatian Asier Rubiok sartutako golak eman zion garaipena Izkiñari.

Final handiaren aurretik kontrolazioko finala eta ligillako finala ere jokatu ziren.

Kontrolazioko partida Obelix taldeak irabazi zuen. Lau gol sartu zizkion Illun F.C.ri, honek berriz ez zuen lortu beste taldeko atean golik sartzea.

Ligillako finala berriz, C.D. Aiete taldeak irabazi

zuen. Aietek hiru gol sartu zizkion Ilargi tabernari, hauek berriz bi gol sartzea lortu zuten.

Ondoren, ligillako partida amaitu zenean, Jalgune taldeko kideak eta Talde Mistoak partida jokatu zuten. Izan ere, aurten Jalgunek 20 urte beteiko ditu eta *20 urte, 11 bertute* ekimenen barruan, partida jokatu eta ederki gozatu zuten guztiek.

Kirolari onenaren saria

Final handiaren aurretik, urtero bezala Ostadarrek bi sari banatu zituen. Lehenengoa Leire Zubizarreta judokak jaso zuen. 2006tik tatamiaren kiroleko maila gorenean ari da lehiatzen Leire. Honako sariak lortu ditu besteak beste: Espainiako txapelduna borro-

ka libre olinpikoan, Euskadiko txapelduna borrokan, Gipuzkoa eta Euskadiko judoko txapelduna eta Euskadiko Samboko txapeldunordea.

Auzolan saria

Aurtengoan emakume talde bati eman dio Ostadarrek Auzolan saria, eliza atontzen duten emakume taldeari. Garaia iristen denean prest aurkitzen da guztia, ezkontzetan... bataioetan, jaunartzetan... Emakume talde honek beraien denbora libre eskaintzen diote parrokiari, garbitzen, txukuntzen, loreak jartzen, alfonbrak...

Horregatik saritu nahi izan dute talde hau, modu anoni-moan eta irabazi asmorik gabe egiten duten lan guztia errekonozitzeko. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Atletismoa da alebin eta benjamin mailako gaztetzoeke probatuko duten kiroletako bat.

Eskola-kirolaren festa handia larunbatean

Lasarte-Oriako 7 eta 12 urte arteko gaztetzoeke hitzorduak dute larunbatean, maiatzaren 28an, Michelingo kirol gunean, izan ere, Eskola kirola jaialdia ospatuko da.

Antolatzaileek azaldu digutenez, kirol ezberdinak landuko dira adinaren arabera.

Aurrebenjaminen, LH1 eta LH2 mailako gazteek kirol hastapena egingo dute. Pilotalekuan izango da jarduerak, 10:00etatik 11:30era.

Benjamin eta alebin mailako gaztetzoeke, berriz, goizeko 9:30etatik aurrera, kirol ezberdinak egiteko aukera izango dute: futbola, herri kirola, saskibaloia, erugbya eta atletismoa.

Maila bakoitzeko txapelketa bat antolatuko da, hau da, maila bereko taldeak

lehiatuko dira eta, era honetara, lau txapelketa oongo dira kirol bakoitzeko.

Honetaz gain, oparienezko zozketa egingo da festan parte hartu duten guztien artean.

Tenisa

Era berean, arratsaldean 16:00etatik aurrera, ikasturtean zehar tenisean ibili diren LH3 eta LH4 mailako benjaminen tenisean egiteko aukera izango dute.

DBH

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, DBH mailakoek ez dituzte denboraldiko txapelketak amaitu eta oraindik zehaztu gabe dagoen datu batean ospatuko dute haiek eskola-kirola festa. •

Naiara Lizaso igerilaria Gipuzkoako txapeldun bikoitza

■ Urrezko bi domina eskuratu zituen ■ Buruntzaldea IKT taldeko alebinez lan ona egin zuten asteburuko txapelketetan

Lehenengo asteburuan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko alebinez Gipuzkoako txapelketa-Igerilari osoa eta eskolarteko sariketa jokatu zituzten Ordizian.

Gipuzkoako eskolartekoan Naiara Lizaso txapeldun bikoitza izan zen eta Mikel Sotok bi laugarren postu lortu zituen.

Naiarak 100 m. tximeleta eta 100 m. proba librean parte hartu eta bietan urrezko domina eskuratu zuen. Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, "tximeletan ez zuen bere marka hobetzerik izan. 100 metro libreetan, aldiz, bere marka 5 segundutan hobetzea lortu zuen".

Bestetik, Mikel, laugarren izan zen 100 eta 200 m. bular probetan, "oso gutxigatik ez zuen dominarik lortu".

Gauzak honela, Naiarak lortutako emaitzei esker Gipuzkoako selekzioarekin Gasteizen maiatzaren 28an egingo diren Euskadiko Joko Eskolartean parte hartzeko txartela lortu du.



Mikel Soto eta Naiara Lizaso eskolartekoan lortutako dominekin. Arg.: Buruntzaldea IKT

Mikelen kasuan, Joko Eskolartean zuzenean izateko txartelik lortu ez badu ere, entrenatzailearen ustetan, "egindako marka eta postuak direla eta, bertan izango da".

Igerilari osoa

Bestalde, Beñat Alkorta, Iñaki Etxebeste, Maialen Casado eta Janire Berasartek *Igerilari osoa* txapelketan lan bikaina egin zuten, Buruntzaldeko

igeriketa taldeko entrenatzaileak azpimarratu duenez.

Lau probatan parte hartu behar izan zuten gaztetzoeke, 50 m. tximeleta, 100 m. bizkar proban eta 100 m. bular eta libreetan.

"Bi saioetan parte hartzen zuten lehen aldia zen. Laurek esfortzu bikaina egin zuten eta hobekuntza nabarmena erakutsi zuten" aipatu du Borja Apeztegiak. •

Carbayeda Gipuzkoako txapeldun

Buruntzazpi Txirindularitza Eskolako jubenil, infantil eta alebin mailako txirindulariek aste hauetan errepideko Gipuzkoako Txapelketan lehiatu dira eta, oro har, emaitza onak eskuratu dituzte.

Lehenengo larunbatean, maiatzaren 14ean, Seguran, Luken Carbayeda Urruzolak alebin mailako Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen.

Segurako garaipena Bazpi eskolako gaztetzoeke egin duen denboraldi paregabeari amaiera emateko era ezin hobea izan da.

Izan ere, parte hartu duen hamar lasterketetatik zortzi irabazi ditu, batean bigarren egin du eta besteetan, erori eta ezin izan zuten postu onik lortu.

Hirugarren jubeniletan

Era berean, igandean, maiatzaren 15ean Mutrikun jubenilen txapelketa jokatu zen.

Honetan, Buruntzazpi txirindularitza eskolako Xabier Bengoetxeak hirugarren postua eskuratu zuen.



Luken Carbayeda, erdian, Gipuzkoako txapeldunaren elastikoa jantzita.

Lasterketa buruan joan zen Bazpiko txirindularia lasterketa osoan.

Hala baina, esprinta iristerakoan, Mikel Aristi eta Asier Unanue azkarragoak izan eta 02:15:57 denborarekin bronzetzeko postua eskuratu zuen.

Xabierrek ere denboraldi ona egin du. Esate baterako, aurreko astean Seguran garaipena lortu zuen Santa Krutz

proban, bigarrenari 50 segundoko errenta aterata.

Hurrengo txapelketak

Asteburuetako sari eta probetaz gain, Bazpiko kadeteek ekaineko lehen astean Gipuzkoako errepideko txapelketa eta uztailean, erlojupekoa dute eta jubeniletan, bestalde, ekainaren 1an izango da Gipuzkoako erlojupeko proba. •

Atletismoan ere hiru herritar Gipuzkoako txapeldun

Kadete, jubenil, junior eta beteteranoetako Gipuzkoako txapelketako lehenengo bi jardunaldiak burutu ziren Tolosa eta Donostian lehenengo asteburuan.

Bertan herriko hainbat atletek parte hartu eta emaitza onak lortu zituzten.

Gauzak honela, Lasarte-Orian hiru Gipuzkoako txapeldun berri daude, Gaizka Ormazabal, Ane Galardi eta Santos Uribe.

Beterano maila

Zumeatarra taldean dabilen Santos Uribe herritarrek, 5 kilometro martxa izeneko proban urrezko domina eskuratu zuen 75 urte baino gehiagoko mailan, 38m. 46 s. eta 87' markarekin.

Junior eta jubenil maila

LOKEko Gaizka Ormazabal eta Irati Larrañagak parte hartu zuten junior mailan eta jubeniletan, berriz, Ane de Miguelek.

OrmazabalGipuzkoako

txapeldun izan zen, 400 metro hesiekin proban 59s. 14' markarekin.

Larrañagak, berriz, luzera jautzian bigarren postua eskuratu zuen, 4 metro 93 zm.ko jauziarekin.

Ane de Miguel jubenilak proba berean laugarren postua eskuratu zuen bere mailan.

Kadete maila

Kadete mailan ere, LOKEk Gipuzkoako txapeldun berria du, Ane Galardi.

Galardik, aldiz, luzera jauziko txapela eskuratu zuen, 4 metro 81 zm.ko jauziarekin.

Bestalde, Maria Eugik bosgarren postua eskuratu zuen proba berean.

Eta mutilei dagokienez, Itoitz Rodriguez-ek zilarrezko domina eskuratu zuen 600 metroetan.

Hurrengo asteburuan, Gipuzkoako txapelketako 3. eta 4. jardunaldiak antolatuko dira Arrasate eta Donostian, beraz, domina gehiago lortu ditzakete herriko atletak. •

HAUR-ESKOLA

Haur-eskolan izena emateko epea irekia

Maiatzaren 27a arte haur-eskolan izena emateko epea irekia egongo da. Goizeko 09:00etatik 13:00ak bitartean Manuel Lekuona kultur etxetik pasa beharko dira aurretiko izen ematean interesatuak daudenak. 2009ko urtarrilaren 1etik gaur egunera bitartean jaiotako haurrei zuzenduta dago. Aurrematrikula egiteko unean, 40 ordaindu beharko da eta zenbaterako hori matrikula pagatzean deskontatuko da. •

LANAK

Zabaleta baserriko errotonda eraikitzen

Goiegi Ibarreko eta Zabaleta Berriko hirigintza-garapen lanekin jarraituz, atzo maiatzak 23, Nasipa SL enpresak Hernani Bidea eta Buenos Aires Aldapa arteko errotonda berria egiteko lanak martxan jarri zituen, Zabaleta baserriaren ondoan.

Lanek ibilgailu-zirkulazioan eragina dute eta behar bezala adierazita dauden behin behineko desbideratzeekin irtenbidea ematen zaio.

Edateko ur-horniketan ere etete zehatzak egin behar dira, beti ere gaueko ordutegian 23:00ak eta 6:00ak bitartean eta alde aurretik kaltetutako auzotarrei jakinaraziko zaie.

Lan hauek irailean amaitzea aurreikusita dago. Lerro hauen bidez, Lasarte-Oriako Udalak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

ATSOBAKAR ERRESIDENTZIA

Aurreakordiora iritsi dira Atsobakarren

Atsobakar zaharren egoitzako langileak jakinarazi dituzten aurreikusitako zituzten lan geldialdiak bertan behar utzi dituzte enpresarekin pertsonal finkorako aurre akordio onuragarri batera iritsi ondoren.

Honen bidez zaharren egoitzen hitzarmen kolektiboan aurreikusten den igoera aplikatuko diete eta aurretik zituzten hobeak ere mantenduko dituzte baina nabardura batekin "hobekuntza onuragarriak *ad personam* lortu ditugu, langile zehatz izen abizenekin, ez dugu lortu enpresa konbentzitzea hobeak aldi baterako langileentzat eta etorkizuneko kontratazioentzat aplikatzea" azaldu digute langileen batzordetik. •

BIYAK-BAT

Mahai jokotan izena emateko epea irekia

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak jakinarazi nahi du San Pedroko jaien barruan ospatzen diren mahai joko eta mugimenduzko jokoak ekainaren 8tik aurrera hasiko direla jokatzeko.

Hauetan parte hartu nahi duenak, maiatzaren 25etik aurrera egoitzako bulegotik pasa beharko du izena emateko. Inskripzio epea ekainaren 3an itxiko da. •

BURUNTZ-AZPI ELKARTEA

Arrantza txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du maiatzaren 29an, elkar-tearen arrantzaldi arineko txapelketa antolatuta dela.

Txapelketak, goizeko 09:00etatik 12:00etara, Leizaran ibaioko eremu librean izango du lekua. •



JALGI KAFE-ANTZOKIA

Gazteak eta euskara

Jon Zubiaga antzezleak Unai Iturriria bertsoariak idatzitako *Buak txabal!* umorea eta ironia nahastean dituen bakarrizketa eskaini zuen ostiral gauean Jalgi Kafe antzokian.

Tabernara hurbildu ziren herritarrek lokal batean ordu asko sartuta ematen dituen Garikoitz Kortabitarte *Betik* euskarekin duen harreman gatazkatsua eta eleaniztasunari buruz duen iritzia ezagutzeko aukera izan zuten. •



Landaberri ikastolako eta Zubietako antzerki taldeko txikiak kolorez eta dantzaz bete zuten atzo kultur etxeko aretoa.

Antzerki eta dantzaz betetako hamabost egun aurretik

Zubietako taldeak lehenengoz parte hartu zuen atzo

Antzerki eta dantza aste-ko lehenengo bi saioak ikusi ziren atzo kultur etxeko aretoan eta horietako bat aurten hasi den talde batena izan zen, Zubietako antzerki taldekoarena.

Zubietako taldeak *Koloretako mundua* lana eskaini zuen.

Talde honen aurretik, Landaberri ikastolako LH1 mailako gaztetxoek *Zuri beltzean* obra eskaini zuten.

Antzerkia astean zehar

Hala baina, hauek ez dira ikusi ahaliko diren saio bakarrak. Aurten 30 antzerki eta dantza talde dira jaialdi handi honetan Manuel Lekuona kul-

tur etxeko taulatik pasako direnak eta horietako talde batzuentzat, Zubietakoaren antzera, estreinaldia izango da.

Astean zehar antzerki giroaz beteko da kultur etxeko aretoa egunero, 19:00etatik aurrera.

Dantza asteburuan

Larunbatean, berriz, herriko kaleetan izango dira Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasleak.

Desfile erraldoia egingo dute eta herriko kaleak musikatuz eta kolorez beteko dituzte.

Igandean berriz, dantzako ikuskizunak egongo dira. Eguerdian, euskal dantza eta

sorkuntzako taldeen lanaz gozatu ahaliko da eta arratsaldean, berriz, dantza garaiki-deaz.

Bigarren astea

Eta astebeteko etenaren ostean, ekainaren 6tik 11ra herriko ikastetxeetako eta Añorgako Amasorrain ikastolako gaztetxoaren lanak ikustea gain, Lasarte-Oriako eta Añorgako gazte eta helduen emanaldiez gozatu ahal izango da.

Aurten gainera, Kukukak herriko Jalgune elkarteak gazteei gonbita egin eta hauek ere parte hartuko dute edizio honetan, *20 urte hamaika bertute* obrarekin. •



Lasarte-Oriako uraren erabileraren azterketa.-

Lasarte-Oriako Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako LH2 mailako gaztetxoek haien ikastetxeetako eta herriko uraren erabileraren azterketa egin dute kurtsoan zehar. Ikastetxeen agenda 21aren barruan dagoen ekintza honen ondorioz ikasitakoa eta herriaren egoerari buruz egin duten diagnostika lehengo ostegunean aurkeztu zituzten Udaltzatzaile aretoan. Horretaz gain, Udalarari eskaerak ere egin zituzten, hala nola, obretan urrik alferrik gastatzen ez dela kontrolatzea, euria egiten duenean lorategiak ez ureztatzea, iturrien emaria bost segundotara gutxitzea izan ziren edo etxeetako iturrietako ura aurrezteko sistemak eta ur-tangetan jartzeko poltsak banatzea. Lasarte-Oriako alkateak, Jesus Zaballosek proposamenak entzun eta kontuan izango zituela adierazi zuen. •

Egunero

Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANeko giza euskubideak argazki erakusketa Mundu Bat GKE-ren eskutik. Jalgi kafe-antzokian, egun osoa.



Ostirala, 27

Kontzertua

HIRA taldearen kontzertu akustikoa. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



Kontzertua

FLASH BACK taldearen pop-rocka doaneko emanaldian. Abend kafe-antzokian, 00:00etan.



Bide okerretik ateratzeko aukera

NEDS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. John McGill gazteak bigarren hezkuntza hasi behar du. Mutil bizkorra da, sentibera eta ikasteko gogoarekin baina ez da oso giro egokian bizi: bere familia oso pobrea da, eta gorroto duen bere aita alkoholiko bortitz bat da. Itxura guztia du ez dela bide onetik joango John, baina bapatean, zuzentzeko aukera suertatuko zaio...

OSTEGUNEAN, HILAREN 26AN
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA, 4,20 EURO
GAZTELANIAZ

Larunbata, 28

Kontzertua

HARMONIA ABESBATZAREN emanaldia. Kataluniatik dator talde hau Albokarekin elkar trukea eginenez. Brigitarren komentua, 20:00etan.

Osteguna, 2

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "NERABEAREN AURPEGIAK" Meskal Rosen eskutik. Kulturetxean, 18:00etan.

IX. Antzerki eta Dantza Astea

EUSKARAZ, KULTURETXEAN

Astelehena 23

Euskal Dantzak.

10:45ean eta 19:00etan
Zuri beltzean eta Koloretako mundua, LH 1.

Astelehena, 6

11:00etan eta 19:00etan
Goazen jolastera, Mimo bat naiz eta Burugorri institutoan, HH eta LH.

Asteartea 24

11:30ean eta, 19:00etan
Zortzi neska ta erdi, igogailuan eta Kutxidazu bidea Ixabel, lanak DBH 2-4

Asteartea, 7

11:15ean eta 19:00etan
Hollywoodeko izarrak eta Eskale musikariak, LH 4.

Asteazkena 25

11:15ean eta 19:00etan
Mimo bat naiz, LH 3

Asteazkena, 8

11:15ean eta 19:00etan
Bizko-bizko, txooo!, Txanpon bila New Yorken eta Erasoak akabo, LH 6.

Osteguna 26

11:00etan eta 19:00etan
Urtaroak, LH 2.

Osteguna, 9

11:15ean eta 19:00etan
Klown abenturak, LH 5.

Ostirala 27

12:00etan
Dantzaz Blai emanaldia.

Ostirala, 10

22:30ean
LarrialdiAIAIAIA, helduek.

12:00etan eta 19:00etan
Mutilik ez dago, ala? eta Baietz harrapatu, Txanogorritu, DBH 1.

Larunbata 28

18:30ean
Ikasleen desfilea herriko kaleetan zehar.

Larunbata, 11

20:00etan
Bizitzaren zirkoa, gazteen taldeak eta Cromtech Añoragako taldeak.

Igandea 29

12:30ean eta 19:00etan
Dantzaz Blai emanaldia eta

22:30ean
Andrearen urtea, helduek eta 20 urte hamaika bertute Jalgunen taldeak.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara



Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 27an Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan datorren astelehenean, hilaren 30ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima

zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Paella txapelketa

Ekainaren 4an paella txapelketa egingo dute Gazte Klubeko gaztetxoek. Eguerdiko 12etan hasiko da Amaraun ludotekan bertan.

Izena emateko azken eguna ekainaren 2a da (2a barne). Horretarako telefonoz deitu dezakezue 943 371448 zenbakira edo pasa Ttakun Kultur Elkartetik (Geltoki kalea 4). Animatu zaitezte eta hartu parte txapelketan!

Zabaleta auzoko jaiak

Zabaleta auzoko lagunak ekainaren lehenengo astean egingo diren auzoko jaiak antolatzen hasi dira. Bilerak ostegunetan Antonio Blas plazako garajearen egingo dira.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzue zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzue; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Gpuntuari ondo ari dira bertsolari gazteak

- Asier Azpiroz-ek du momentuz Gipuzkoako Txapelketan herrikoen puntuaketik altuena
- Maiatzaren 28-29 eta ekainaren 5ean erabakiko da zeintzuk izango diren final zortzirenetan

Gpuntuari Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen fasean parte hartzen ari dira Ttakuneko bertso eskolako ordezkariak. Lehen fasean bi aldiz kantatu behar du bertsolari bakoitzak, eta lehen itzulia amaitu denean gazteak dira momentuz puntu gehiena pilatu eta final zortzirenetan izateko aukera gehien dituztenak.

JON ALTUNA

Arratsaldean kantatu dutenen artean, Beñat Lizaso da lehenengoa, 11 bertsoan (8 bertso eta sei koplak) 289 puntu eskuratuta.

Bertso Eskolako artean Asier Azpiroz da aurrengoa, bosgarren 280,5 punturekin, Beñat Iguaran zortzigarrena da, 275 punturekin, Unai Gaztelumendi bederatzigarrena 273,5 punturekin eta 11.a Ane Labaka 272,5 punturekin. Lauak daude final zortzirenetara pasatzeko aukerarekin.

Zigor Iriondo atzerago geratu da, 24.a 255 punturekin eta oso saio ona egin

beharko du datorren asteburuan aurrera egin nahi badu.

Arratsaldean, aritu diren kantatuko dute hurrengo bi asteburuetan eta alderantziz. Lehen itzulian, sei koplak eta zortzi bertso kantatu dituzte, binaka ofizioan hiru zortziko handian, beste hiru hamarrek txikian, eta beste bi, kartzelako gai bati bertsolariak aukeraturako doinu eta neurrian.

Goizez kantatu duten 13 bertso puntuagarri kantatu dituzte, binaka hiruna, zortziko handian, zortziko txikian eta Iparragirrenen doinuan, eta azkenik kartzelako lana, zortziko txikian puntuari erantzunez hiru bertso eta hitza



Ane Labakak Alegian kantatu zuen maiatzaren 14an eta 272,5 punturekin final zortzirenetara pasatzeko moduan dago.

emanda gehienez bost puntuko bertsoa.

Beste saio bana

Goizean aritu diren artean Astigarragako Agin Rezola da puntu gehien pilatu dituenak, 367, eta Andoni Otamendik aurrera egiteko aukerak ditu, 13. da 321 punturekin.

Dena den, irailean final zortzirenetan kantatu nahi badu, maiatzaren 28an Amezketan arratsaldeko 17:30etan orain arteko mailari eutsi beharko dio.

Egun eta toki berean, baina goizeko 11:30etan kantatuko du Beñat Iguaranek. Zigor Iriondo eta Unai Gaztelumen-

dik ere 28an 11:30etan kantatuko dute, baina Usurbilgo Sutegi aretoan. Azkenik Ane Labaka eta Asier Azpirozek ekainaren 5ean igandean kantatuko dute Zumarraga-Urretxuko Zelai Arizti aretoan. Aipagarria da Unai Muñoa zuzenean sailkatua dagoela final zortzirenetarako. •



txixarro

erretegia 

Etorri, probatu
eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Berria!

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak

Bataioak

Familiarteko bazkariak

.....

Txikierdi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964



GOIEGI

Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 • 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) • T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

Ekainetik Irailera gauero* zabalik
Asteko menu berezia ikusteko:

www.goiegi.com



* igandea eta astelehena ezik